

Sencilamente, porque en el currículo se entiende que la educación integral del alumnado, es decir, la capacitación para la vida en la sociedad vasca y en la cultura de nuestra comunidad se debe lograr a partir de unos aprendizajes no solo disciplinares, sino también transversales.

En este sentido tiene gran importancia la evaluación, puesto que se puede decir que tiene como finalidad prioritaria la mejora del proceso educativo y de la calidad de la enseñanza que se imparte. Este planteamiento exige una actitud permanente de apertura al cambio y a la modificación de los procesos establecidos e iniciados en el aula.

De este modo, tanto el profesorado (sujeto activo de la enseñanza), como el alumnado (sujeto activo del aprendizaje) son evaluados. La evaluación de la actuación docente es más necesaria en tanto en cuanto es el estamento o ámbito en el que más decisiones operativas se toman a diario (muchas y trascendentes) y, en buena lógica, serán más acertadas en la medida que se basen en buena información y diagnóstico de las situaciones.

Sin embargo no son estos estamentos los únicos en ser evaluados. Sabemos que, si analizamos la implantación y logros de los aprendizajes transversales en el currículo de algún centro, lo haremos con las siguientes finalidades:

- \* A los alumnos y alumnas se les evalúa para poder diseñar, adecuar e individualizar estrategias y procesos de aprendizaje y facilitar, así, la orientación y la adaptación.
- \* Al examinar la práctica docente se persigue la mejora profesional y la formación permanente en un esfuerzo continuo de perfeccionamiento pedagógico.
- \* Si nos detenemos en el centro se intentará mejorar el funcionamiento del mismo en orden a responder a las demandas de la Comunidad Escolar.
- \* Y como consecuencia de todo analizaremos el mismo sistema educativo, puesto que pretendemos la mejora en el funcionamiento del sistema y garantizar una enseñanza de calidad.

## ZEHAR LERROAK HEZKUNTZA PRAKTIKAN

KEPA MARTINEZ DE LAGOS

### Laburpena

Transbertsalitatea praktika guztian gauzatzen hada ere, azaleraketa eta plangintzak ezinbesteko pausoak ditu:

- Izkutuko curriculumaz aldatu
- Honen azterketa kritikoa eragin
- Adostasuna eraiki egitarau zehatz batetan
- Eguneroko ekintza eta nahiak elkar-bidean jarri
- Egitekoaren gauzatze egoki eta pausoz-pausokoa

### Eskola eta errealtatearen lotura

Ez dugu planteatzen azken modari jarraitzeko estrategia. Hezkuntza munduan, Erreforma, teoria, orientabide, edo proposamen berriek, Hezkuntza beraren aldaketa premia aldarrikatzen dute beti, Heziketa kontzeptioa, filosofia berriaren beharrezana. Hutsunea eta ondoriozko beharrezana, ordea,

sinplea da, ERREALITATEAREKIKO LOTURA, eguneroko bizitza, ingurua, pertsonak, gizartearekiko lotura, ohizko laborategi-eremua utzirik. Era horretan, bizitzak eta gizarteak aldarrikatzen duten balore kategoriatan baten premiari sentiberak izanik, ingurua eta gizakiaren harremanetarako kontzeptio berri bati dagokion hezkuntza-praktika gauzatu behar dugu.

### Zehar lerroak Curriculumean

Gizartetik sortu dira gaur Zehar Lerroen atalean jasotzen diren zenbait beharrezana eta sentsibilitate. Ondorioz, gizarte horrekin lotu nahi dugun Heziketa-funtzioa, eskolarena barne, berraztertu nahi dugu.

Era berean, giza-pertsonaren garapen osoa bilakatu nahi dugu, inguru fisiko zein sozialaren kidea den gizakiarena; eta hortik uste dut datozkigula garatze, integratze eta sozializatze funtzioak.

Has gaitezen bada, eskola-lana arakatzeko. Eskola eta zientziaren neutraltasuna sarritan argudiatu arren, eskolan ez dira sekula arlo eta nozio hutsak eman, zientziataz ez naiz orain arituko. Ez dago eta ez da inoiz egon, ideario gabeko irakaskintza, ikastetxe edo irakaslerik; idatzi gabeko ideario hori ezkutuko curriculumean dago eta azaleratu eta berraztertu beharko dugu ezer baino lehen.

### Zehar lerroak ikastetxearen oinarritzko erabaketan

Heziketa Sistemak eskatzen duen Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua (IHP) dugu lehen pausoa. Beronek, eskola bakoitzak bizi duen errealtateari eta berau kokatzen den inguru eta problematikari egokitu eta erantzun behar dio. Hortik hasiko beharko dugu beraz, Zehar Lerroek egiten duten errealtatearen irakurketa curriculumean sartzeko ahaleginean. IHP-a hitzarmen garrantzitsuean da, komunitate hezitzailea osatzen duten elementu guztien konprometua eta beronen garapen eta sinesgarritasunarako akordioen abiapuntua.

IHP-a erabakitzeke, has gaitezen curriculumaren iturrien berrirakurketa egiten, curriculum-aukera guztientzat oinarri adierazle eta mugatzaileak izango diren erabakiak hartu aurretik. Errealtatera hurbiltzeko ariketa interesgarria dugu berau. Azalera ditzagun gure heziketa-errealitatea eta bereonen azken heburuak, inguru orokorra eta eskola-komunitatea kokaturikoa kontuan izanik. Zehatz ditzagun zenbait eredu: mundua, pertsona, gizabanakoa eta gizarte, kideen arteko harremanak, bai eta gure heziketa/ikasketa teoria ere; garatuko dugun hezkuntza ereduak argia izan behar da eta.

Adibide gisa, eta Ingurugiro Heziketaren ikuspegiak eta sentsibilitateak azpimarratzen duguna kontuan hartuz, zera adieraz dezakegu:

“IHP-ak, alde batetik, ingurunearen ezagupen eta gozamenaren eta bere erabilpen arrazionala erraztean, eta bestetik, gure herrialdeak eta planeta osoak planteatuta dituen ingurune-arazoei aurre egitean, hezkuntzak duen garrantzia behar du, eta gainera, aspektu horiek eskolaren ingurune hurbilean eta eskolan bertan zehaztu behar ditu”<sup>1</sup>.

Honezkerok, Lerro bakoitzak azpimarratzen dituen ikuspegi, arazo eta sentsibilitateek, denek elkarrekin, errealtatearen konplexutasunaren isla osagarriak izanik, eguneroko bizi-

1. “Ikastetxeen Hezkuntza Proiektuak egiteko zenbait iradokizun INGURUGIRO HEZIKETAren ikuspegiak”. CEIDA-IHIA/SEEZ. 1993.

tzarekin lotutako hezkuntz eredia osatzen dute, irakaskuntzari ezinbesteko *oinarri didaktikoa* emanez. Dimentsio hau curriculumaren edozein zehazpen, elementu zein momentuari buruzko erabakietan, kontutan hartu beharrekoa izango da; hala nola zein kultura sistema ematen dugun, gizon-emakumezko erlazioak, garapen arrazionala eta solidarioa, osasun, oreka, bake kontzepzioak eta abar direlarik.

Helburu orokor hauek gure eskola-komunitatean zehazki definitu eta hitzartuz gero, hurrengo aurrerapausoa koherentzia ildotik doa. Ez dut transbertsalitatea egingo, eduki batzuk gehitzen dizkiodanean curriculum disziplinarioari, ez eta interdisziplinarioari ere; curriculum transbertsalizatzeko, eskola osoa eta egunerokoa egin behar dut/dugu koherente akordiozko IHP-rekin, eta ondorioz bertan jasotako inguru-sistemaren premiekin.

Honekin hurrengo pausoa aipatzera noa, Ikastetxearen Curriculum-Proiektuaren (ICP) diseinua. Erabateko koherentzia utopia dugu, noski, eta ez dut ezinezko produktua saldu nahi, hobetzeko *joera* baizik. Oinarritzko dokumentu hauek, hain zuzen, ez dira itxiak; irekiak dira, dinamikoak, etengabe berrazterketari eta berreraiketari lotuak ditugu. Bestetik, ICP-ren zehazpena ez da hutsetik abiatzen. Has gaitetzen da, gure eguneroko praktika transbertsalizatzen; jar ditzagun IHP-rekiko koherentzia geure programak, edukiak eta jiteak, geure matematikako adibideak eta zientzi-planteamendua, geure metodoa eta jokaerak, edo gutxienez ez gaitetzen IHP-ren kontasesaleak izan; hitz batez, sinez dezagun eta sinez arazi gure oinarritzko dokumentuetan hitzartutza: heziketa globala; pertsonaren garapen osoa; munduaren kontzepzio sistemikoa; ezagupenaren eraikitze prozesua; aprendizai adierazgarria; eta abar.

Horrela, eta errealtate gordinari itsatsita, baloratu nahi dudun transbertsalitatearen gutxienezko funtziotan jarriko nuke, hezkuntzan eta eskolan bertan, gai izan gaitzela honako hauek gauzatzeko:

- IHP-tik egin daitekeen arlo desberdinen berrirakurketa,
- ondoriozko beraien berregituraketa,
- eduki, helburu eta prozesuen egokitzea, hutsuneak eta kontraesanak azaleratuz, eta ondoriozko zuzenketak eta gehigarriak sartuz,
- zehar lerroetan aldarrikatzen diren balore, jarrera eta jokaeren kontrastaketa.

Beste modu batetan esanda eta zehatz-mehatz ematearren: IHP-rekiko koherentzia, Gutxienezko Dekretuan, arloko sekuentziarioetan, merkatura azaldutako programa eta textuetan, ikastetxeko jiteetan, eta abarretan gauzatu beharko dugu. Postura azken batez, honetan datza: eskola-komunitatearen antolamendua, barneko jokaerak eta harreman sarea, programak, edukiak, aktibitateak, baliabideak, curriculum-osagai bakoitza, dena hurbildu behar dugu gure IHP-ren erreferentziara.

Ostean, irakurri, aztertu eta ebaluatu egingo dugu gure diseinua oinarritzko helburuen ikuspegitik, zehar lerroen laguntzaz eraikitako *oinarri didaktikoa*, eskola-organismoaren scannerra bihurtuko dugu.

### Perspektibak eta aukerak

Sarritan esaten da eskolak, Heziketa Sistemaren barnean izan duen historia ikusita, arazoan azterketa eta konponketan aritu beharrean, teorikoki horretarako behar diren tresnen lan-tzean ihardun dela laborategi itxi batetan, errealtate kanpo.

A) Ikuspegi ezezkor honetatik, esan nahi dut Zehar Lerroen aukera saio teoriko gerta daitekeela; azken batez

laborategi aseptiko horretako frogetetan gehitu eta nahastuko diren kontzeptu, prozedura eta balore "berrizale" batzuk, besterik ez. Gure inertziaren tentazioa dugu honako hau, Gizartearekin batera eraldatzen ez den Heziketa Sistemak, noizbehinkako Erreformak aldarrikatu behar ditu, hizkera eta itxura gaurkotzeko, gainazalak aldatzeko. Oraingoan ere, Erreformaren aukera disziplinarri eutsi zaio berriz; curriculum proiektua arlo edo disciplina sistema batetan garatzen da, arlo hauek lokabeak edo gutxienez lokagaitzak direlarik; horrela izanik, norik iragar dezake ahalegin erreformatzaile honen "bestelakotasuna"?

Transbertsalitatea, interdisziplinatatea, eta beste zenbait adierazle itxuroso aldarrikatu arren, Erreforma letra hutsa gerta daiteke edo eta "hitzaldi" osos guztia sisteman "murgildu" arlo berriaren gisan; kasu honetan garrantzia argialetxe eta irakasle kontzientziatuaren esku eta ardurapean berriro ere izanik.

B) Proposamen berri bat egin behar dugu beraz: disziplinar-teko curriculum eraikitzea. Ingurugiro Heziketatik, Zehar Lerroen osotasuna eta Heziketa Globalaren perspektiba galdu gabe, zera azpimarratu nahi dut: kokapena, bizi garen inguruarekiko harremana. Heziketaren ardatza diren zientifismo eta antropozentismoa utzi behar dugu, biosferaren orekan dugun leku eta betetzekoa berreskuratu, biozentrismoa pentsatu beharra dugu. Ez dugu Lerro bat ardatzat hartzen, bizi eta kide garen INGURUA baizik, inguru fisiko-biologikoa, ekonomikoa, politiko eta soziokulturala. Honen barnean, eta Ingurugiro Hezkuntzaren ikuspegitik, birplanteatu egiten dugu hezkuntzaren zertarakoa, beronen egitekoa, garatzeko diren baloreak..., sentsibilitate batek azpimarratzen dituen osagai batzuk adierazteko, eta beste sentsibilitate eta heziketa printzipio eta beharrez guztiekin kidegizko, ahaztu gabe, curriculum, eduki eta helburuez gain, askoz elementu gehiagoren erlazio sistema bat dela:

- Ezagupenak, kide naizen/garen inguruarena beraren funtzionamendua arauak egotea, elkar-erlazioak eta arazoak nire/gure elkar-eragina inguruarekiko (egile edota jasotzaile garelarik)
- Gaitasunak, uler, egia eta aurrikusteko bereiz, proposa eta iradokitzeko alternatibak eta soluzioak gauzatzeko arduratsuki erabaki eta ebaluatzeko
- Baloreak, jokaerak, partehartzea aldaketa, garapena, partizipazioa erantzukizuneko jokaera

C) Arlo desberdinen multzoei jarraitu beharrean, inguruko eta momentoko problema zehatzetatik abiatu, eguneroko bizitzatik; arazoa eta zergatiak osotasunean aztertu eta ulertzeko, arlo desberdinen potentzialitateaz eta erabilkera horren bilakaera propioari eutsiz; norberaren inplikazioaz jabetzeko eta ondorioz gure jarrera eta joerak moldatuz; eta azkenez, egokiro erantzuteko, irtenbideak iradokituz eta ekintzetan partehartzuz. Inguruan eta ingurutik hazten eta ikasten, baina batez ere INGURUAREN ALDE ihardutzen.